

GIPUZKOAKO HORNITEGIEN SEKTOREKO ENPRESEK ETA LANGILEEK GEROA BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEKO ERAKUNDEARI EGIN BEHARREKO EKARPENEI BURUZKO AKORDIOA SINATZEAREN AKTA.

Donostian, 2001eko urriaren 1ean, AEGArek egoitzan bildu dira Jon Manterola Altuna, Jorge Yáñez Arrondo, Nazario Olaizola Zuloaga, Javier Gisasola Muñoz, Carlos Ramos Etxabe, Carlos Toral Durán, Antxon Mugica Iraola eta Juan M.^a López Osa, enpresen ordezkariak, eta José Luis Treku Lertxundi, Juan Antonio Martínez Larrea, Avelino Rodríguez Enrique, Antton Roteta eta Carmen Corral Belloso (ELA); Miguel González Larzabal, Iñaki Saizar Makazaga eta Andone Arrieta Arcelai (aholkularia) (LAB) eta José Ariza Guerrero (CCOO), langileen ordezkariak. Pertsona horiek osatzen duten Akordioaren Batzorde Negoziatzaileak erabaki beharko du Gipuzkoako hornitegien sektoreko enpresa eta langileek GEROA, BGAeri egin beharreko ekarpenak finkatu behar dituen Akordioa. GEROA, BGAek Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen erregistroan 178-G zenbakia du.

AEGA enpresen ordezkariak eta Sindikatuek ondokoa erabaki dute:

1) Akordio hauek Gipuzkoako hornitegien sektoreko enpresa eta langile guztiengan dute eragina.

Hori dela-eta, akordio hauen aplikazio-esparruak bat egingo du indarrean dagoen 2001-2002ko Gipuzkoako hornitegiatarako hitzarmen kolektiboaren 2. artikuluan (esparru funtzionala) eta 1. artikuluan (lurralde-esparrua) ezartzen den esparru funtzional eta pertsonalarekin. Hortaz, adierazitako esparruan barne hartzen diren hornitegiatarako enpresa eta lantegi guztietan eta bertako langileengan izango du eragina akordio horrek, enpresa eta lantegi horietan beren hitzarmen edo itun kolektiboak dituzten arren edo gauza ditzaketan arren.

2) 1994ko ekainaren 20ko Gizarte Segurantzaren Legearen 39.2. artikuluan adierazitakoaren indarrez, akordio honen eraginpean dauden enpresek eta langileek GEROA Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeari hilean nahitaez egin beharreko ekarpena ondokoa izango da:

2001eko urtarrilaren 1etik aurrera langilearen Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrerako kotizazio-oinarriaren %1, %0,50 langilearen kargura izango da eta beste %0,50 enpresaren kargura.

2002ko urtarrilaren 1etik aurrera langilearen Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrerako kotizazio-oinarriaren %1,50, %0,75 langilearen kargura izango da eta beste %0,75 enpresaren kargura.

Enpresak batera egingo ditu ekarpenak; hortaz, langilearen kargurako ehunekoak dagokion soldataren nominatik kenduko da.

3) Akordio hauek “gai jakin bati buruzko akordioak” dira, Langileen Estatutuaren 83.3. artikuluan aintzat hartzen den moduan. Hala, erakunde sinatzaileek artikulua horretan jasotzen den ordezkariak izango dute.

4) Lan Agintaritzari Akordio hauek jaso eta erregistra ditzan eskatuko zaio, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ditzan ere.

Eta, besterik gabe, amaiera eman zaio bilkurari goian adierazitako hirian eta egunean.

NOTA: Konkretuki, aportazio hauek aurrerantzean, urtero gutxienez %50eko hazkunde berrmatua izango dutela erabaki dute alderdiek. %0,25a langileen kargura izango da eta beste %0,25 enpresaren kargura, urteroko urtarrilak 1etik aurrera eta %7ko aportazio globalera heldu arte, GEROA aurreikuspen erakundeak muga baxuago bat ezarri ezean.

GEROA BGAEk goiko parrafoan adierazitako %7 baino muga baxuagoa ezarriko balu, urteko aldizkakotasun berdinez, enpresek langileei ordaindu beharko die muga horretara iristeko geratzen zaien erantzunkizunaren %0,25; hots, %0,20ra aldatuz eta "BGAEra aportazio ordezkapena" kontzeptupean.